



|     |   |   |   |   |   |
|-----|---|---|---|---|---|
| T-5 | <b>1. Animalia zelulek karbohidratozko erregaiak metatzen dituzte...</b>  | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- Glukogeno moduan</li> <li>b- Zelulosa moduan</li> <li>c- Jariatze bikorretan</li> <li>d- Mitokondrioaren barruan</li> </ul>   |   |   |   |   |
| T-5 | <b>2. Animalia-zelulen mitokondrioak...</b>   | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- Erraz fusionatzen dira</li> <li>b- Bitan zatitzen dira zelula mitosia sartzen denean</li> <li>c- Nukleotik gertu mantentzen dira zitoeskeletori esker</li> <li>d- Guztiak TXARTO daude</li> </ul>   |   |   |   |   |
| T-5 | <b>3. Aukeratu egokia dena mitokondrioari buruz</b>   | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- Matrize mitokondrialean entzima ugari daude</li> <li>b- Matrize mitokondrialean erribosomak daude</li> <li>c- Kanpo mintza oso iragazgaitza da</li> <li>d- Guztiak ondo daude</li> </ul>  |   |   |   |   |
| T-5 | <b>4. Aukeratu erantzun egokia arnas-kateari buruz:</b>   | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- Arnas-katearen konplexuek mitokondrioaren bi mintzak zeharkatzen dituzte</li> <li>b- Haren funtzio nagusi bat protoien ponpaketa da, beti mintz arteko gunetik matrize mitokondrialera</li> <li>c- Oxigenoa beharrezkoa da arnas-katearen azken konplexuan gertatzen den erreakziorako</li> <li>d- Arnas-katearen proteina guztiak mitokondrioan bertan sintetizatzen dira</li> </ul> |   |   |   |   |
| T-5 | <b>5. Prozesu hauetatik bat ez da gertatzen mitokondrioan. Zein da?</b>   | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- Glukosaren apurketa</li> <li>b- Proteinen sintesia</li> <li>c- RNAREN sintesia</li> <li>d- DNAREN erreplikazioa</li> </ul>  |   |   |   |   |
| T-5 | <b>6. Adierazpen hauetatik aukeratu GEZURREZKOA dena:</b>   | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- ATP sintasa arnas-katearen osagaia da</li> <li>b- ATP sintasak turbina moduan jokatzen du</li> <li>c- ATP sintasak protoien gradientearen erabiliz ATP molekula sintetizatzen ditu</li> <li>d- ATP sintasak alderantziz ere jokatzen du, hau da, ATParen hidrolisia egin dezake</li> </ul>  |   |   |   |   |



|     |   |   |   |   |   |
|-----|---|---|---|---|---|
| T-5 | <b>7. Nola irteten dira mitokondriotik ATP molekula berriak?</b>  | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- Difusio sinplearen bidez</li> <li>b- Garraio aktiboaren bidez</li> <li>c- "Sinporte" mekanismo baten bidez</li> <li>d- Guztiak TXARTO daude</li> </ul>  |   |   |   |   |
| T-5 | <b>8. Genoma mitokondrialean dagoen informazioa beharrezkoa da RNA eta proteina espezifikoak sintetizatzeko. Horien artean:</b>   | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- tRNA mitokondriala</li> <li>b- DNA mitokondrialaren erreplikazioaz arduratzen diren entzimak</li> <li>c- Krebs zikloaren entzimak</li> <li>d- Guztiak TXARTO daude</li> </ul>   |   |   |   |   |
| T-5 | <b>9. Aukeratu adierazpen egokia peroxisomei buruz:</b>   | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- Animalia-zeluletan soilik daude peroxisomak</li> <li>b- Hidrogeno peroxidoa peroxisomaren jardura metabolikoaren ondorioz sortzen da eta, oso toxikoa denez, kanpora esportatzen da berehala</li> <li>c- Mitokondrioetan bezala, organulu honetan ere gertatzen da gantz azidoen <math>\beta</math>-oxidazioa</li> <li>d- Autofagian zuzenean inplikaturik daude</li> </ul> |   |   |   |   |
| T-5 | <b>10. Peroxisomen osagaien artean honako hauek aipa ditzakegu:</b>   | a | b | c | d |
|     | <ul style="list-style-type: none"> <li>a- Katalasa</li> <li>b- Peroxinak</li> <li>c- Oxidasak</li> <li>d- Guztiak dira proteina peroxisomikoak</li> </ul>   |   |   |   |   |